

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Zabala Madarieta Nick

*Ispaster
Bizkaia (1943)*

Aurkibidea



Biografia



Guraso biak Ispasterrekoak zituen. Gallette baserrian bizi ziren. Bost senidetan erdikoa, 10 urterekin seminaria bidali zuten fraidegai (lau urterako). 14 urterekin mekaniko ikasi zuen Lekeition (kamioiak eta itsasontziak). Elgoibarren egon zen gero lanean, auto-mekaniko. Soldadutza egin ostean Ameriketara joan zen (hiru anaia bera baino lehenago joan ziren), 1967an, Hagermanera (Idaho) ardi-lanera: urte eta erdi "campero" egin zuen eta beste urte eta erdi "mayordomo". 1970ean Carmen Zabalarerekin ezkondu zen (bi seme-alaba izan zituzten eta biek dakite euskaraz). Emazteak eta berak ugazaba berarentzat lanean jarraitu zuten: emaztea sukaldari eta lñaki "mayordomo", arrantxoan. Bost urtera, baina, Idaho Power elektrizitate enpresan hasi zen lanean eta bertan ibili zen erretiroa hartu arte: turbinak soldatzen eta mekaniko lehenengo eta enkargatu moduan gerora. Mahastiak ipini zituzten eta Carmela ardandegiari saltzen zizkieten. Mexikon etxea erosi zuten eta bost hilabete bertan igarotzen zituen, emaztearekin.

Zintak

ISP-014

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-15
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com